neskak eta mutilak pertsona autonomoak izatera iristeko, osotasunez garatuak eta bere inguruarekin harreman egokiak izango dituena (nork bere buruarekin, bere bikotearekin, familiarekin, lagunekin, inguru sozial eta naturalarekin tratu onak).

**Egiten dugun lanak, ordainduak eta ez ordainduak, pertsona bezala definitzen gaitu** (aukera eta muga batzuk ezartzen ditu gure bizitzan) **eta gure inguru sozialean kokatzen gaitu** (bikotean, familian, lagunartean, udalerrian… leku eta funtzio bat ematen digu).

Kontzeptu eta eduki hauek lantzeko, laugarren unitate didaktikoa lanbide ezberdinen sorta anitza jasotzen du, ondorengo **helburuekin**:

- Gure gizartean **enplegua izatea aukera bat ez dela** ulertzea, pertsona guztien bizitza eta autonomiarako beharrezkoa den zerbait baizik, emakume eta gizon bakoitzarentzako ezinbesteko eta utziezina den giza eskubidea.

- **Enplegu bat aukeratu ahal eta behar dutela**, bere ezaugarri indibidualetara hobekien egokitzen dena, edukiarengatik edo baldintza laboralengatik egin nahi dutena.

- Neskak, kolektibo bezala eta neskak izateagatik, **ez direla enplegu batzuetarako aurrez prestatuta jaiotzen**, ezta mutilak beste batzuetarako mutilak izateagatik ere.

- **Enplegu eta lanbide guztiak emakume nahiz gizonentzako aurreikusi eta izendatzea.** Gure neskek zein mutilek horiek denak aukera posible bezala ikustea etorkizunean.

- Gaur egun izatez, **praktikan, emakumeentzako eta gizonentzako enpleguak daudela** hausnartu eta ulertzea eta aurreiritzi hauek nola gainditu daitezkeen aztertzea.

- **Ikasi eta trebatzen badira, neskek zein mutilek edozien enplegu egin eta izan dezaketela**, guztiz pertsonalak ez diren bestelako mugarik gabe.

- **Enpleguen zereginak gaitasun batzuekin lotzen direla** eta hauek ez direla pertsonen sexuaren araberakoak (beren sexua dela-eta partaide diren kolektiboarenak), baizik eta ikasketa, heziketa, prestaketa eta ezaugarri indibidualen araberakoak, batez ere.

- Emakume eta gizonentzako enplegua berdintasunean posible dela soilik **emakume eta gizonek ordaindu gabeko lan familiarraren erantzukizuna hartzen badute eta antzeko denbora eta dedikazioa eskaintzen badiote.**

PAILAZOA

barrea
sudur gorria



risa
nariz roja

PAYASA
PAYASO

nuestro mundo (parejas, familias, sociedad...) funcione. Nuestro bienestar, nuestra riqueza, es consecuencia de ambos tipos de trabajo. Ambos trabajos son imprescindibles para que cada chica y chico llegue a ser una persona autónoma, desarrollada íntegramente y con unas relaciones satisfactorias con su entorno (buenos tratos consigo misma, con su pareja, su familia, sus amistades, su entorno social y natural).

**El trabajo que realizamos, remunerado y no remunerado, nos define como personas** (marca unas posibilidades y unos límites para nuestra vida) **y nos sitúa en nuestro entorno social** (nos da un lugar y una función en nuestra pareja, familia, amistades, localidad...).

Para trabajar todos estos conceptos y contenidos, la cuarta unidad didáctica se centra en un variado abanico de distintos empleos, con los siguientes **objetivos**:

- Que entiendan que, en nuestra sociedad, **tener un empleo remunerado no es una elección** sino algo necesario para la autonomía y la vida de todas las personas, un derecho humano imprescindible e irrenunciable para cada mujer y para cada hombre.

- **Que pueden y deben elegir un empleo**, el que mejor desarrolle sus características individuales, el que deseen desempeñar por su contenido o por sus condiciones laborales.

- Que entiendan que las chicas, como colectivo y por ser chicas, **no nacen predispuestas para unos empleos**, ni los chicos por ser chicos para otros.

- Que **visibilicen y nombren todos los empleos y profesiones tanto para mujeres como para hombres**. Que tanto nuestras alumnas y como nuestros alumnos vean todos ellos como opciones posibles en su futuro.

- Que analicen y entiendan por qué en la actualidad, **de hecho, hay empleos para mujeres y empleos para hombres**, y como podrían superar esos prejuicios.

- Que **si aprenden y se capacitan, unas y otros pueden hacer y tener cualquier empleo**, sin otras limitaciones que las estrictamente personales.

- Que **el desempeño de los empleos se relaciona con determinadas capacidades** y que éstas no dependen del sexo de las personas (del colectivo al que pertenecen por su sexo), sino, sobre todo, del aprendizaje, la educación, la formación y las características individuales.

- Que el empleo en igualdad para mujeres y hombres sólo es posible si mujeres y hombres **se corresponsabilizan del trabajo familiar no remunerado y lo desempeñan con similar dedicación temporal.**

ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

tratu txarrak NAHIKO! 3-4 berdintasuna
maltrato igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna · Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

IRAKASLEAREN GIDA
GUÍA DEL PROFESORADO 7

# LANBIDEAK
# EMPLEOS

UNIDAD DIDÁCTICA **4** UNITATE DIDAKTIKOA

## 1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Laugarren unitate didaktikoak, aurrekoan landu genuen Berdintasunaren Okaren alderdi berri bat lantzen du. **Berdintasunaren Okak** gure ikasleentzako aukera berdintasunean oinarritutako ezinbesteko hezkuntza-bidearen proposamena irudikatzen du, bai neskentzako eta bai mutilentzako. Bide hau Giza-eskubideen aplikazioan oinarritzen da, emakume nahiz gizonei, arlo pribatu nahiz publikoan. Helburua neskak nahiz mutilak pertsona autonomoak izatea da eta, norberaren aukera indibidualen arabera, bakoitzak bere burua bizitzaren alor guztietan garatzea. Horretarako, neskek eta mutilek bere sexuari ezarritako genero estereotipoek eragindako muga sozialak ezagutu eta gainditu behar dituzte, bigarren unitate didaktikoan Mutilen Oka (oka urdina) eta Nesken Okaren (oka arrosa) bitartez irudikatu genituenak.

Lehenengo eta bigarren unitateetan, Berdintasunaren Okaren honako bi ezinbesteko eta oinarrizko alor edo alderdiak landu genituen: zainketa (familiarra) eta aniztasuna (indibiduala). Berdintasun eta justizia gehiago egongo den beste mundu bat posible izateko, puntu grisak baino puntu berde gehiago dituen mundu bat lortzeko, beharrezkoa da emakumeek eta gizonek egunerokotasunean bi alderdi hauen ardura hartzea. Laugarren unitate didaktikoak Berdintasunaren Okaren funtsezko beste alderdi bat sakontzen du: lana, lan ordaindua, enplegua.

**Lana, ordaindua edo ez**, emakume eta gizonen jarduerarik beharrezko eta nagusienetakoa da gure gizartean. Indibidualki nahiz kolektiboki behar diren zainketak, zerbitzuak, produktu eta errekurtsoak emateaz gain, pertsona bakoitzaren izaera eta bizimodua eratzen ditu, eta baita pertsona bakoitzak familian eta gizartean

POSTARIA

buzoia
eskutitza



buzón
carta

CARTERA
CARTERO

## 1 OBJETIVOS Y CONTENIDOS

La cuarta unidad didáctica se centra en un nuevo aspecto de la Oca de la Igualdad que utilizamos en la unidad anterior. **La Oca de la igualdad** representa una propuesta de recorrido educativo vital en igualdad de oportunidades para nuestras alumnas y para nuestros alumnos. Se basa en la aplicación de los Derechos Humanos tanto a las mujeres como a los hombres, tanto en el ámbito privado como en el público. El objetivo es que tanto las chicas como los chicos sean personas autónomas y se desarrollen según sus posibilidades individuales en todos los ámbitos de la vida. Para ello, chicas y chicos deben conocer y superar las limitaciones sociales asignadas a su sexo por los estereotipos de género, que representamos en la segunda unidad didáctica mediante la Oca de los Chicos (oca azul) y la Oca de las Chicas (oca rosa).

La primera y segunda unidad didácticas trabajaron dos de estos ámbitos o aspectos vitales básicos de la Oca de la Igualdad: el cuidado (familiar) y la diversidad (individual). Es necesario que mujeres y hombres asuman ambos aspectos en sus vidas cotidianas para que sea posible un mundo con mayor igualdad y justicia, un mundo con más puntos verdes que grises. La cuarta unidad didáctica profundiza otro aspecto fundamental de la Oca de la Igualdad: el empleo, el trabajo remunerado.

**El trabajo, remunerado o no**, es una de las principales y más necesarias actividades de mujeres y hombres en nuestra sociedad. No sólo aporta los cuidados, servicios, productos y recursos necesarios individual y colectivamente, sino que también configura la personalidad y la forma de vida de cada persona, así como el rol y el estatus social de cada individuo en su familia y su sociedad.

En nuestra sociedad, hay trabajos que tienen una remuneración económica, trabajos que

Guía profesorado-4.qxd 12/06/2009 9:55 Página 2





dituen rola eta estatusa ere.

Gure gizartean, ordain ekonomikoa duten lanak daude, ordaintzen diren lanak, eta enplegua deitzen ohi ditugu. Beste lan batzuk ez dute gure gizartean ordain ekonomikorik, ez dira ordaintzen. Enplegu gehienak produkzioaren alor publikoan egiten dira, hau tradizionalki gizonei egokitu zaien alorra delarik. Ordainduak ez diren lanak ordea, etxeko alor pribatuan egiten dira, tradizionalki emakumeei egokitu zaien alorrean. Hori dela-eta, bi lan mota hauei, ordaindua eta ez ordaindua, lan produktibo eta erreproduktiboa deitzen zaie, hurrenez hurren.

**"Lana" terminoaren ohiko erabilera soziala,** ("lanean zaude?, zertan egiten duzu lan?, zein lana duzu?") lan ordainduari dagokio, enpleguari. Orokorrean ordea, ordaindu gabeko lana egiten duten pertsonetaz, zainketa familiarraren lan erreproduktiboa arduratzen direnetaz, ez dutela lanik egiten esaten da ("lan egiteari utzi diot nire semearekin egoteko"). Erabilera hau genero rol eta estereotipoetatik dator (zainketa lanik gabeko oka urdina eta lan ordaindurik gabeko oka arrosa) eta lanaren banaketa sexualak eragindako aurreiritzi eta diskriminazioak transmititzen ditu. Banaketa honek, zentzu erradikalenean, emakumeek ordaindu gabeko lanaren munduan (familiarra) jarraitzea eta gizonek enpleguaren munduan (laborala) jarraitzea defendatzen du.

Gaur egun, gure gizartearen baldintza sozio-ekonomikoak kontuan hartuta, genero eredu hauek ñabardura eta zehaztasun berriak dituzte: emakumeek enplegua izan dezakete (eta baita behar izan ere) baina soilik era osagarrian eta haien lanik nagusiena izango litzatekeen ordaindu gabeko lana egiten jarraitzen uzten dien bitartean. Hau da, enplegua Emakumeen Okan sartu egin da (oka arrosa) baina ez Gizonen Okaren modu berdinean, ezta baldintza berdinetan ere. Teorikoki eta legalki emakumeek nahiz gizonek edozein lanetara sartu ahal badira ere, **praktikan datuek emakumeentzako eta gizonentzako lanak daudela erakusten digute**, bai edukian zein lan-baldintzetan. Adibidez, gure gizartean ondorengoa egiazta dezakegu:

- Emakumeek zerbitzu sektoreko pertsonen zainketarekin zerikusia duten enplegu gehienak egiten dituzte: laguntza, garbiketa, elikadura, zainketa, arreta, antolaketa, osasuna, heziketa, etab. Gizonak oro har, ez dira lanbide eta enplegu hauetan aritzen.

- Emakumeek lanaldi partzialeko kontratu gehienak dituzte, eta ordainsari eta prestigio gutxiagoko enplegu gehienak. Izan ere, lanbide eta enpleguek sozialki balioa galtzen dute hauetan gehiengoa emakumeak direnean. Tradizionalki emakumeek egindako lanek ordea, balio handiagoa hartzen dute gizonek egiten dituztenean.

- Bizitza laborala eta familiarraren arteko kontziliazio neurri deituriko gehienak emakumeek erabiltzen dituzte: lanaldi murrizketak, eszedentziak, etab. Gizonek - gehienetan- ostera, pertsona modu partzial eta aldi baterako lan mundutik ateratzen duten eta bere ibilbide profesionala ahuldu dezaketen neurri hauek sahiesten dituzte.

- Emakumeek ordaindu gabeko lan familiarra egiten jarraitzen dute, horrek suposatzen dituen ardura eta zereginen gainkargekin (lanaldi bikoitza deiturikoa) eta beren enpleguetan dakarzkien zailtasun eta murrizketekin (mugikortasun eta prestutasunean zailtasun eta murrizketak). Orokorrean, gizonek ez dute modu esanguratsu batean handitu ordaindu gabeko lan erreproduktiboari emandako denbora. Alegia, zainketa ez da oraindik Gizonen Okan sartu.

Errealitate honek **desabantail eta diskriminazioak** sortzen ditu **emakumeentzat alor laboralean** eta ondorioz, haien autonomia pertsonal, bizitza-proiektu eta bikote-harreman eta familiarretan, hauetan tratu txarren arriskua handituz.

Gure gizartean **enplegua ezinbestekoa da bizitzeko**, erabat beharrezkoa da pertsonen autonomia eta bizitzarako. Horregatik da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako oinarrizko eskubideetako bat. Gure egungo gizartean enplegurik gabe ez dago autonomia ekonomikorik eta autonomia ekonomikorik gabe ezin da autonomia pertsonala izan. Emakume eta gizonek enplegua, lan ordaindua, behar dute izan bizitza-proiektuak (familiarrak eta profesionalak) autonomiaz eta aukera berdintasunez garatu ahal izateko, dependentziarik gabe eta ezberdintasun harremanik gabe.

**Berdintasun Okak ordaindu gabeko lana kontuan hartu eta balioa ematen dio**, eta pertsona guztiek, emakumeek eta gizonek, pertsona, bikote, familia eta oro har, gizarterako ezinbestekoa den lan hau ikasi eta egin behar dutela azpimarratzen du. Zentzu honetan, arlo hau gure ikasle mutilekin landu behar dugu bereziki, zeren eta, ikusi dugun bezala, dituzten eredu sozial gehienek ez baitute balio hau kontuan hartzen.

**Berdintasun Okak ordaindutako lana, enplegua, kontuan hartu eta balioa ematen dio**, eta pertsona guztiek, emakumeek eta gizonek, pertsona, bikote, familia eta oro har, gizarterako ezinbestekoa den lan hau ikasi eta egin behar dutela azpimarratzen du. Zentzu honetan, gure ikasle neskekin bereziki beren bizitzaren funtsean enpleguak duen garrantzia landu behar dugu, dituzten eredu sozial gehienek ez baitute balio hau kontuan hartzen edo egitekotan, desabantail eta diskriminazio handiekin egiten dute, ikusi dugun bezala.

**Nahiko Programak** (Berdintasun Okak) neskek eta mutilek bi lan mota hauek baloratu, ikasi eta egin ditzatela proposatzen du. Biak beharrezkoak dira gure mundua (bikoteak, familiak, gizartea…) funtzionatzeko. Gure ongizatea, gure ondasunak, bi lan moten ondorioa da. Bi lan hauek ezinbestekoak dira

KUTXAZAINA

erosi
ordaindu



comprar
pagar

CAJERA
CAJERO

SUKALDARIA

lapikoa
janaria



puchero
comida

COCINERA
COCINERO

se pagan, y que se denominan habitualmente empleos. Otros trabajos no tienen en nuestra sociedad esta remuneración económica, no se pagan. En su mayoría, los empleos se desempeñan en la esfera pública de la producción, ámbito que tradicionalmente se ha asignado a los hombres. Al contrario, los trabajos no remunerados se desarrollan habitualmente en la esfera privada del hogar, ámbito que tradicionalmente se ha asignado a las mujeres. Por ello, estos dos tipos de trabajo, remunerado y no remunerado, también se denominan como trabajo productivo y trabajo reproductivo respectivamente.

**El uso social habitual del término "trabajo"** ("¿trabajas? ¿en qué trabajas? ¿qué trabajo tienes?") se refiere al trabajo remunerado, al empleo. Por el contrario, generalmente, se dice que las personas que realizan el trabajo no remunerado, el trabajo reproductivo del cuidado familiar, no trabajan ("he dejado de trabajar para estar con mi hijo"). Este uso deriva de los roles y estereotipos de género (la oca azul sin trabajos de cuidado y la oca rosa sin trabajo remunerado) y transmite los prejuicios y las discriminaciones de la división sexual del trabajo. Esta división propugna, en su forma más radical, que las mujeres permanezcan en el mundo del trabajo no remunerado (familiar) y los hombres en el mundo del empleo (laboral).

Actualmente, dadas las condiciones socio-económicas de nuestra sociedad, estos modelos de género han adoptado formas más matizadas: las mujeres pueden (e incluso deben) tener empleo, pero sólo de forma complementaria y en la medida que les permita continuar desarrollando su trabajo no remunerado, que sería su trabajo principal. Es decir, el empleo ha entrado en la Oca de las Mujeres (la oca rosa) pero no de la misma forma y con las mismas condiciones que en la Oca de los Hombres. Aunque teóricamente y legalmente tanto mujeres como hombres pueden acceder a cualquier empleo, de hecho, los datos señalan hay **empleos para mujeres y empleos para hombres**, tanto en el contenido como en las condiciones de los mismos. Por ejemplo, en nuestra sociedad podemos constatar que:

- Las mujeres desempeñan la mayoría de los empleos de los sectores de servicios ligados con el cuidado de las personas: compañía, limpieza, alimentación, cuidado, atención, organización, sanidad, educación, etc. Los hombres, en general, apenas acceden a estos empleos.

- Las mujeres desempeñan la mayoría de los empleos a tiempo parcial y la mayoría de los empleos de menor retribución y prestigio social. De hecho, las profesiones y empleos se desvalorizan socialmente cuando la mayoría en ellas son mujeres. Y, por el contrario, los empleos tradicionalmente ocupados por mujeres se revalorizan al ser desempeñados por hombres.

- Las mujeres utilizan la mayoría de las llamadas medidas de conciliación entre vida laboral y vida familiar: reducciones de jornada, excedencias, etc., mientras que los hombres -mayoritariamente- evitan estas medidas que, de forma más o menos parcial y temporal, sacan a la persona del mercado laboral pudiendo debilitar su carrera profesional.

- Las mujeres siguen desempeñando la mayoría del trabajo familiar no remunerado, con la consiguiente sobrecarga de responsabilidades y tareas (la llamada doble jornada) y las dificultades y restricciones que esto conlleva en sus empleos (dificultades y restricciones en su movilidad y disponibilidad laboral). Los hombres en general no han aumentado significativamente su desempeño de trabajo reproductivo no remunerado. Es decir, el cuidado no ha entrado todavía en la Oca de los Hombres.

Esta realidad crea **discriminaciones y desventajas para las mujeres en el ámbito laboral** y, en consecuencia, en su autonomía personal, sus proyectos vitales y sus relaciones de pareja y familiares, aumentando el riesgo de malos tratos en las mismas.

En nuestra sociedad, **el empleo es imprescindible para vivir**, es absolutamente necesario para la autonomía y la vida de las personas. Por eso es uno de los derechos fundamentales recogidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos. En nuestra sociedad actual, sin empleo no hay autonomía económica y sin autonomía económica no puede haber autonomía personal. Mujeres y hombres necesitan tener empleo, trabajo remunerado, para poder desarrollar sus proyectos vitales (familiares y profesionales) con autonomía y con igualdad de oportunidades, sin dependencias y relaciones desiguales.

**La Oca de la Igualdad incorpora y da valor al trabajo no remunerado** y considera que todas las personas, mujeres y hombres, deben aprender y desempeñar este trabajo imprescindible para la persona, la pareja, la familia y la sociedad en general. Debemos trabajar especialmente en este sentido con nuestros alumnos, ya que, como hemos visto, la mayoría de sus modelos sociales no incorporan este valor.

**La Oca de la Igualdad incorpora y da valor al trabajo remunerado** y considera que todas las personas, mujeres y hombres, deben aprender y desempeñar este trabajo imprescindible para la persona, la pareja, la familia y la sociedad en general. En este sentido, debemos trabajar especialmente con nuestras alumnas la centralidad del empleo en sus vidas, ya que, como hemos visto, la mayoría de sus modelos sociales no incorporan este valor o lo hacen con grandes desventajas y discriminaciones.

**El Programa Nahiko** (la Oca de la Igualdad), propone que chicas y chicos valoren, aprendan y desempeñen ambos tipos de trabajo. Ambos son necesarios para que

Guía profesorado-4.qxd 12/06/2009 9:55 Página 3






eta lau barajen artean "Hitz debekatuak" jolasaren 60 lanbideak biltzen dira. 60 gaitasun laboral ezberdin daude ere bai, hamabost baraja bakoitzean. Hamabost emakume eta gizonen aurpegi eta izenak errepikatzen dira lau barajatan.

Gaitasun eta lanbideak era ezberdin askotan lotu daitezke. Hau da, gaitasun gehienak lanbide ezberdinetan dira beharrezkoak. Soilik gutxi batzuk dira mugatuagoak. Emakume eta gizonei dagokienez, hasiera batean denak lotu daitezke lanbide eta gaitasun guztiekin.

**Jolasaren dinamika** xinplea da eta "eskoba" karta jolasaren antzekoa da: laukoteak osatu behar dira lau kartekin, adierazitako mota bakoitzeko bat (lanbidea, gaitasuna, emakume eta gizona). Persona bakoitzari hiru karta banatzen zaizkio eta mahai gainean eta erdian lau karta ahoz gora jartzen dira. Txandaka, partaide bakoitzak laukote bat osatu beharko du mahaian dauden hiru karta eta eskuan duen laugarren batekin, lau kartak lanbide bat, gaitasun bat, emakume bat eta gizon bat direlarik. Lortzen badu, lau karta horiek jaso eta bere ondoan eta ahoz behera jarriko ditu. Laukotea ezin badu osatu, dituen kartetatik bat utzi beharko du mahai gainean, ahoz gora, besteen ondoan.

Partaide guztiek hiru kartak erabili dituztenean, beste hiru banatuko dira berriz ere eta horrela denbora guztian baraja osoa agortu arte.

Momenturen batean partaideren batek laukotea osatzea eta mahai gainean kartarik ez uztea lortzen badu, jolasa bukatu egingo da. Hau gertatu ezean, jolasak aurrera jarraituko du karta guztiak erabili eta banatu arte.

dades laborales diferentes repartidas de quince en quince en las barajas. Los rostros y nombres de las quince mujeres y quince hombres se repiten en las cuatro barajas.

Capacidades y empleos pueden relacionarse de muchas formas diferentes. Es decir, la mayoría de las capacidades son necesarias en varios empleos. Hay únicamente unas pocas más restringidas y delimitadas. En cuanto a las mujeres y los hombres, en principio, todas son relacionables con todos los empleos y capacidades.

**La dinámica de juego** es sencilla y recuerda al juego de naipes "la escoba": hay que formar cuartetos con cuatro cartas, una de cada tipo descrito (empleo, capacidad, mujer y hombre). Se reparten tres cartas a cada persona y se ponen cuatro boca arriba en el centro de la mesa. Por turno, cada jugadora y jugador, deberá intentar formar un cuarteto con tres cartas de la mesa y una cuarta de su mano de forma que las cuatro cartas sean un empleo, una capacidad, una mujer y un hombre. Si lo consigue, recogerá las cuatro cartas y las pondrá boca abajo a su lado. Si no puede componer un cuarteto, deberá descartarse de una de sus cartas y dejarla boca arriba en el centro junto a las otras.

Una vez que todas las jugadoras y jugadores hayan utilizado las tres cartas, volverán a repartirse otras tres y así sucesivamente hasta agotar todas las de la baraja.

Si en algún momento, una jugadora o jugador consigue completar un cuarteto y no dejar ninguna carta sobre la mesa, el juego habrá terminado. Si no se diera esta circunstancia, el juego continuará hasta que se hayan repartido y utilizado todas las cartas.




ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

tratu txarrak / maltrato
NAHIKO! 3-4
berdintasuna / igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

IRAKASLEAREN GIDA
GUÍA DEL PROFESORADO
8

# LANBIDEAK
# EMPLEOS

UNIDAD DIDÁCTICA 4 UNITATE DIDAKTIKOA

## 2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honek bi jolas edo material osagarriak ditu, "Hitz debekatuak" jolasa (60 fitxez osatutako baraja bakar bat) eta "Laukoteak" jolasa (60 kartetako lau baraja ezberdin).

**1.- "Hitz debekatuak" jolasa:** 60 fitxa luzeko baraja bakar bat. Gorria da kolore nagusia. Fitxa bakoitzak enplegu edo lanbide ezberdin bat irudikatzen du. Fitxa bakoitzean, goi eta behekaldean lanbidearen izena dator, euskaraz eta gazteleraz. Erdian lanbidea adierazten duten marrazki bat edo gehiago, eta bi hitz azaltzen dira, euskaraz eta gazteleraz biak.

**2.- "Laukoteak" jolasa:** 60 kartetako lau baraja ezberdin. Baraja bat urdina, beste bat laranja, beste bat berdea eta bestea morea. Baraja bakoitzak enplegua edo lanbide bana adierazten duten 15 karta ditu, beste 15 karta gaitasun laboral ezberdinekin, beste 15 karta emakume aurpegiekin eta gainontzeko 15ak gizon aurpegiekin. Lau barajatan azaldutako lanbideak "Hitz debekatuak" jolasean azaltzen diren berdinak dira. Gaitasun laboraleko kartak ezberdinak dira denak, lau barajen artean 60 ezberdin daudelarik. Emakume eta gizonen aurpegiak lau barajatan errepikatzen dira.

Ondoren, aipaturiko jolasetan aritu aurretik edo ondoren gomendagarriak izan daitezkeen **ekintza osagarri batzuk**:

- **"Hitz debekatuak" jolasaren fitxak banatu** eta adierazten duten enplegu eta irudiak komentatu (marrazkiak adierazgarriak dira?, adierazgarriagoak liratekeen bestelako tresna edo elementurik dago?, hurbilagoak edo gehiago interesatzen zaizkigun bestelako lanbideak daude?, zergatik?).

- Gehien harritu, interesatu, gustatu, ez gustatu… ezagutzen ez ditugun lanbideak seinalatu, eta zergatik esan

## 2 MATERIALES Y ACTIVIDADES

Esta unidad didáctica tiene **dos juegos** o materiales complementarios, El juego "Hitz debekatuak- Palabras prohibidas" (una única baraja de 60 fichas) y el juego "Laukoteak-Cuartetos" (cuatro barajas diferentes de 60 cartas cada una).

1.- **Juego "Palabras prohibidas"**: una única baraja de 60 fichas alargadas. El color predominante es el rojo. Cada una de ellas representa un empleo o profesión distinta. En cada ficha, en la parte superior e inferior, figura el nombre del empleo en euskara y castellano. En el centro hay uno o varios dibujos representativos de dicho empleo y dos palabras, en euskara y castellano ambas.

2.- **Juego "Cuartetos":** cuatro barajas diferentes de 60 cartas cada una. Hay una baraja de color azul, otra naranja, otra verde y otra morada. Cada baraja tiene 15 cartas que representan un empleo o profesión cada una, 15 cartas con diferentes capacidades laborales, 15 cartas con rostros de mujeres y 15 cartas con rostros de hombres. Los empleos recogidos en las cuatro barajas son los mismos del juego "Palabras prohibidas". Las cartas con capacidades laborales son todas diferentes, hay sesenta distintas entre las cuatro barajas. Los rostros de hombres y mujeres se repiten en las cuatro barajas.

Algunas **actividades complementarias** recomendadas, antes o después de jugar con los juegos mencionados, pueden ser las siguientes:

- **Repartir las fichas de "Palabras prohibidas"** y comentar las imágenes y los empleos que representan (¿los dibujos son representativos?, ¿hay otros elementos o herramientas que lo serían más?, ¿hay otros empleos que nos son más cercanos o nos interesan más?, ¿por qué?).

- Señalar los empleos que más nos extrañan, interesan,

Guía profesorado-4.qxd 12/06/2009 9:55 Página 4



(inork nahiko ez lukeen baten bat al dago?, eta kontrakoa, mundu guztiak egingo lukeen baten bat?, zergatik?; neskek gehiago nahiago dituzte batzuk eta mutilek beste batzuk?, zergatik?).

- Beste lanbide batzuk izendatu, marrazki adierazgarriak egin, fitxa berriak egin eta jolasera gehitu… edo baraja berri bat sortu.

- Mural, mapa kontzeptualetan taldekatu eta sailkatu, eta laburpenak egin, erakusketak, aurkezpenak… Sexuaren arabera (zeintzuk egiten ohi dituzte gizonek?, zeintzuk emakumeek?, zergatik?), ospe sozial eta ordain ekonomikoaren arabera (hobeto eta okerrago ordainduak), garatzen diren lekuaren arabera (barruan, kanpoan...), gaitasun ezberdinen arabera (pazientzia, arreta, makinak, jendearekin lan egiteko dohainak… eskatzen dituztenak).

- Momentuko albisteekin, eskolako gertaerekin, irakurri diren ipuinak, ikusi diren filmak, inguruko egoerekin, etabarrekin lotu, muralen bitartez (lanbide familiarren taula, udalerriko enpleguak, sektorialak… ondorioak).

**- "Laukoteak" jolasaren kartak banatu** muraletan eta mapa kontzeptualetan taldekatu eta sailkatzeko, eta laburpenak, erakusketak, aurkezpenak… egin. Sexuaren arabera (zein gaitasun kontsideratzen ohi dira emakumeenak?, zeintzuk gizonenak?, zergatik?, zein lanbide kontsideratzen ohi dira emakumeenak?, zeintzuk gizonenak?, zergatik?), lanbideen arabera (zein gaitasun behar dira bakoitzean?, zein da gaitasun gehien eskatzen duena?, zergatik?, hobekien ordainduta dagoena edo ospe handiago duena da?, eta gaitasun gutxiago eskatzen duena?, zergatik?), gaitasunen arabera (zeintzuk dira berezkoak?, zeintzuk ikasiak?, nola eta non ikasten dira?, zergatik?).

- Baraja bakoitzeko lanbide bakoitzerako gaitasun berriak idatzi, neska eta mutil bakoitzari lanbide bat eman eta horren garapenerako beharrezkoak diren gaitasun guztiak idatzi, ikasle bakoitzari gaitasun bana eman eta beharrezkoa den lanbide guztiak bila ditzatela eskatu…

- Deskribatu, kontatu, antzeztu… Karta multzo bat banatu eta pertsonaiak eta hauen bizitzak, elkarrizketak, harremanak… kontatu edo antzeztu, pertsonen arabera (emakume eta gizonen kartak) eta lanbideen arabera.

## 3 "HITZ DEBEKATUAK" JOLASA

Mahai jolasa talde handian (baraja osoarekin) edo talde txikitan (baraja zati ezberdinetan banatuta) jolasteko.

**Osagarriak**:
- 60 fitxa luzez osatutako baraja bakar bat. Gorria da kolore nagusia. Fitxa bakoitzak lanbide edo enplegu ezberdin bat irudikatzen du.

**Fitxa bakoitzean**, goi eta behekaldean lanbidearen izena dator, euskaraz eta gazteleraz. Gazteleraz, lanbidearen emakumezko nahiz gizonezkoaren izenak jaso dira. Adibidez: "cartera" eta "cartero", "secretaria" eta, "secretario", "enfermera" eta "enfermero", "camionera" eta "camionero", etab. Garrantzitsua da biak erabiltzea edota bietako bat erabiltzea txanda duena mutila edo neska bada.

Erdian lanbidearen marrazki adierazgarri bat edo batzuk azaltzen dira. Irudi hauen ondoan bi hitz daude (euskaraz eta gazteleraz), hitz debekatuak dira, jolasean zehar esan ezin direnak.

**Jolasaren dinamika** ezaguna da: pertsona baten lanbidea asmatzean datza. Horretarako, dagokion ikasleak taldeari bere lanbidea zein den azaldu beharko dio, fitxan azaltzen diren hitzak aipatu gabe. Taldeak lanbidea asmatu beharko du eta bi eratan edo bere sexuari egokitzen den eratan izendatu (neska bada, "jueza" eta mutila bada, "juez").

## 4 "LAUKOTEAK" JOLASA

Mahai jolasa talde txikitan jolasteko (talde bakoitza baraja banarekin).

**Osagarriak**:
- 60 kartetako lau baraja ezberdin. Barajetako koloreak: urdina, berdea, laranja eta morea. Denak ezberdinak dira baina jolasteko era berdina da. Lau baraja ezberdin daude jolasten den bakoitzean aldatu ahal izateko.

**Baraja bakoitzean lau karta mota daude**: lanbideak, gaitasunak, emakumeak eta gizonak. Mota edo "palo" hauetatik hamabost karta daude: hamabost lanbide ezberdinak dira,









sorprenden, gustan, disgustan, desconocemos... y decir por qué (¿hay alguno que nadie desearía hacer y, al contrario, alguno que todo el mundo haría? ¿por qué? ¿las alumnas prefieren más unos y los alumnos más otros, por qué?)




- Nombrar otros empleos, hacer dibujos representativos, realizar fichas nuevas y añadirlas al juego... o crear una baraja nueva.

- Clasificarlas y agruparlas en murales, mapas conceptuales y hacer resúmenes, exposiciones, presentaciones... En función del sexo (¿cuáles hacen habitualmente los hombres?, ¿cuáles las mujeres?, ¿por qué?), del prestigio social y remuneración económica (mejor y peor pagados), del lugar en el que se desarrollan (interior, exterior...), de determinadas capacidades (los que requieren paciencia, atención, maquinaria, don de gentes...)

- Ligar mediante murales con noticias del momento, acontecimientos de la escuela, cuentos que se han leído, películas que se han visto, situaciones del entorno, etc. (tabla de empleos familiares, empleos locales, sectoriales... conclusiones)

**- Repartir las cartas de "Laukoteak-Cuartetos"** para clasificarlas y agruparlas en murales, mapas conceptuales y hacer resúmenes, exposiciones, presentaciones... En función del sexo (¿qué capacidades se consideran habitualmente de mujeres?, ¿cuáles de hombres?, ¿por qué?, ¿qué empleos se consideran habitualmente de mujeres?, ¿cuáles de hombres?, ¿por qué?), de los empleos (¿qué capacidades se necesitan en cada empleo?, ¿cuál es el empleo que más capacidades necesita?, ¿por qué?, ¿es el más prestigioso y mejor pagado?, ¿y el que menos?, ¿por qué?), de las capacidades (¿cuáles son innatas?, ¿cuáles aprendidas?, ¿cómo y dónde se aprenden?, ¿por qué?).

- Escribir nuevas capacidades para cada uno de los empleos de cada baraja, dar un empleo a cada alumna y alumno y que escriban todas las capacidades necesarias para su desarrollo, dar una capacidad a cada alumna y alumno y que busquen todos los empleos para los que es necesaria, etc.

- Describir, contar, narrar, representar... Repartir un grupo de cartas y contar o representar brevemente los personajes y sus vidas, sus diálogos y relaciones... en base a las personas (cartas de hombres y mujeres) y sus empleos.

## 3 JUEGO "PALABRAS PROHIBIDAS"

Juego de mesa para jugar en gran grupo (con toda la baraja) o en grupos de número reducido (dividiendo la baraja en varias partes).

**Componentes:**
- Una única baraja de 60 fichas alargadas. El color predominante es el rojo. Cada ficha representa un empleo o profesión distinta.

**En cada ficha**, en la parte superior e inferior, figura el nombre del empleo en euskara y castellano. En castellano se ha incluido la denominación del empleo tanto si lo desempeña una mujer como un hombre. Por ejemplo: cartera y cartero, secretaria y secretario, enfermera y enfermero, camionera y camionero, etc. Es importante que se utilicen ambas o cada una de ellas en el caso de que quién tenga el turno sea una chica o un chico.

En el centro hay uno o varios dibujos representativos de dicho empleo. Junto a estas imágenes hay dos palabras (en euskara y en castellano), son las palabras prohibidas, las que no deben pronunciarse en el juego.

**La dinámica de juego** es conocida: se trata de adivinar el empleo de una persona. Para ello, la alumna o alumno que corresponda, deberá explicar al grupo cual es su empleo sin utilizar las palabras que figuran en la ficha. El grupo deberá adivinar de que empleo se trata y decirlo con su denominación doble o con la adecuada a su sexo ("jueza" si es chica y "juez" si es chico).

## 4 JUEGO "CUARTETOS"

Juego de mesa para jugar en grupos de número reducido (cada grupo con una baraja).

**Componentes:**
- Cuatro barajas diferentes de 60 cartas cada una de ellas. Colores de las barajas: azul, verde, naranja y morado. Todas ellas son distintas pero la forma de jugar con ellas es la misma. Hay cuatro diferentes para poder variar cada vez que se juega.

**Hay cuatro tipos de cartas en cada baraja:** empleos, capacidades, mujeres y hombres. Hay quince cartas de cada uno de estos tipos o "palos". Los quince empleos son distintos y entre las cuatro barajas reúnen los sesenta empleos del juego "Palabras prohibidas". Hay también sesenta capaci-